

# “Lan-eremu zehatzetatik azterketa- metodologia unibertsalak lor daitezkeela ikusidugu”

*Madalen Gonzalez Bereziartuarekin solasean*



Ianire de Andres Olabarria  
Arkitektoa eta Aldiri aldizkariko kidea

2017ko irailean *International Research Seminar in Urbanization Processes and Natural Morphologies* [Hiritartze Prozesuen eta Morfologia Naturalen inguruko Nazioarteko Ikerketa Mintegia] ikastaroa antolatu zen Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan. Mintegiak hirigintza, paisaiagintza eta espazioarekin lotutako beste arlo batzuk jorratu zituen, Maider Uriarte Idiazabal (1981-2016) doktore, irakasle eta aldirikidearen ikerketa-lerroari segika. Mintegiko zuzendarikide Madalen González-Bereziartua (Donostia, 1981) doktore eta EHUko irakaslearekin izan gara solasean mintegiaren nondik norakoez eta Maider Uriarteren eraginaz.

## ***International Research Seminar in Urbanization Processes and Natural Morphologies. Zehatzago esaterik badago zertaz jardun zuen udako ikastaroak?***

Jardunaldia antolatzeko Maider Uriarteren ikerketa-arloa 3 puntutan xehatu genuen: hiri-ertzetako paisaiak, hirigintza eta paisaia hirigune menditsuetan eta, azkenik, lurralde-antolakuntzarako metodologia eta tresnak. Berez, azken hori jatorrian tesiaren helburu nagusia ez bazen ere, azkenean metodologia bat sortu zuen bere tesian, eta gaiarekin zuzen-zuzenean lotuta ez dagoen arren, interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen.

### ***Eta hau guztia, ingelesez.***

Maiderrek tesia euskaraz eta ingelesez egin zuen, eta haren sarea nazioartekoa da. Mintegiaren sortze-prozesua ere horren isla izan zen: komite zientifikoan egon gara lau txostengile nagusiak [Ben Campkin, Martin Prominski, Sören Schöbel eta Vera Vicenzotti], Izaskun Aseguinolaza eta

ni neu. Ingelesarena, gainera, deialdia Europara eta mundura irekitzeko aukera bat izan zen.

Hizkuntzarekin jarraituz, Vicenzottik *Translating Landscape Urbanism* [Paisaia-hirigintza itzuliz] hitzaldia eman zuen, non azaltzen zuen zenbateraino den garrantzitsua itzulpena, terminologia berria ekartzen dugunean, esaterako, Estatu Batuetatik.

### ***Paisaia hitzarekin ere gertatzen den zerbait da, ezta?***

Hala da, bai. Maiderrek tesia euskaraz idatzi zuen, eta paisaiaren ikerketaren inguruko hitz pila bat inoiz argitaratu gabea zen. Tesian badu ideia nagusi bat, paisaiak ez direla soilik ikusten diren gauzak, baizik eta badituztela osagai kulturalak eta abar.

Ben Campkin-ek, adibidez, Londreseko auzo marginaletan gertatu diren eraldaketak azaldu zituen, hiri-ertzetako paisaia, baina erakutsiz ertzak ere badirela historiaren ertzak, dagoena eta ez dagoena, zaharberritzeak... Historialaria da bera. Hemen askok badute joera *paisaia* mendiarekin lotzekoa, baina osagai askoz gehiago daude.

### ***Aldirin esparru oso zehatz batean ari gara lanean: euskaratik ari gara, euskara irakurlearentzat, arkitektura euskaraz edo euskaratik egiten dutenekin batez ere. Baina, aldi berean, esparru lokaletik abiatuta marko global batean kokatzeko intentzioarekin. Nola landu lokaltasunaren eta globaltasunaren arteko lotura hori?***

Lan-eremuak ikusten dituzunean erraz nabaritzen den zerbait da. Mintegira Oviedoko mutil bat etorri zen,

Oviedoko lurralde-azterketa bat erakustera, eta gauza oso espezifikoak izanagatik erabilitako azterketa-metodologia guztioi balio zigun zerbait zen. Ezin gara beti gauza orokorreki buruz gauza asko esaten ibili, marko erabat kontzeptualetan, errealitatean lur hartzerakoan gauzak planteatzen direlako hemen, Txilen edo Turkian, berdin dio.

Istanbuli buruzko aurkezpen bi egon ziren, biak osagarriak. Horieta bat zen *Open Spaces in Between* [Tarteko Espazio Irekiak] (Alexandra Bauer), non egileak azaltzen zuen espazioak nola irakurtzen zituen ikuspuntu pertsonal batetik —emakumea eta kanpotarra izanik, gainera—, ondoren interbentzio-proposamen batzuk egiteko. Eskala gertu-gertukoa zen: izkinak, jendea non zegoen eta ez zegoen, non sentitzen zen gustura edo deseroso... baina, aldi berean, azterketa unibertsala da.

**Badirudi korrante berri bat badagoela, globalizaziotik ihes egin nahian nolabait, lokala ardatz hartu duena. Atzerriko formulak akritikoki kopiatzetik erreferentzia eta ereduaren balioa mespretxatzera pasa gara?**

Leku bakoitzak bere idiosinkrasia du, baina etengabe ari gara asmatuak dauden ereduak lekuetan aplikatzen. Tokiaren eta jendearen garrantzia asko azpimarratzen dute parte-hartze prozesuek, eta horrekin lotuta polita izan zen Luísa Alpalhao-ren aurkezpena: frakaso bat esplikatzen zuten, partaidetza-prozesu baten porrot bat.

Portugaleko *Outros espaços* [Beste espazioak] proiektua azaldu zuten, aspalditik hobetu nahi zuten zelai urbano baten eraldaketa-prozesua. Teoria guztia aipatzen du artikuluan: hiria izateko eskubidea, David Harvey, Henri Lefebvre... baina artikulua azkenean apatiaren kronologia bat da: nola bileretara lau katu hurbiltzen ziren, nola udalak diseinu bat soilik nahi zuten, eta nola azkenean nonbaitetik atera zen marrazkitxo batek justifikatu zuten azken diseinua. Artikuluaren ondorioa erabatekoa zen: hiritarrek ez zuten *hiria izateko eskubide* hori praktikan jarri. Teoriaren eta praktikaren arteko aldea oso agerikoa zen kasu honetan, eta adibidea oso lokala izan arren, irakaspenak balio globala du.

**Egon al zen mintegian maiz errepikatu zen ideia nagusirik?**

Askotan azaldu zen gauzei nola esaten zaien, zein izen ematen zaien eta izen horiek duten garrantzia. Esaterako, nik esaten badut «eremu bat hiri-morfologiaren ikuspuntutik» aztertu behar dela, gauza bat ulertzen ari naiz, ikasi dudan horrekin zerikusia izango duena, Bartzelonako eskolaren eraginarekin eta abar. Baina hara non badatorren bat, gai beraren inguruan, GIS [Geografia Informazioko Sistemak] bidezko sekulako kalkuluak aurkeztera, nik inondik ere imajinatuko ez nituzkeenak. Zenbateraino den garrantzitsua, hitzetik harago, zertan gabiltzan ongi azaltzea, mintegian zehar asko errepikatu zen ideia izan zen.

**Amaitzeko, zein izan zen Mainer Uriarteren ekarpen nagusia? Terminologia aipatu duzu lehen, zer gehiago aipatuko zenuke?**

Aipagarria da egin zuten lan kartografiko izugarria, eta leku lokal batetik abiatutako metodologia bat proposatzea.



Irudiaren egilea ~ Bea Aparicio.

Bere hasierako helburua izan ez arren, lanak aurrera egin ahala konturatu zen metodologia bat egiten ari zela, eta 4 dimentsioko metodologia bat sortu zuten; unibertsala, baina Bilboko ertzei aplikatua, kasu honetan. Oso inguru indartsua gainera, ez baita mendia soilik fisikoki, meatzeak dira, mendia nola pentsatzen den, nola oroitzen den, imajinarioan zer dagoen... irakurketa ezberdin asko dira. Mainerren tesia Bilbori buruzko sekulako lana da, baina azpimarragarriena metodologia eta ikuspegi orokor hori da.

===

Mintegia dela eta *I International Research Seminar in Urban Processes and Natural Morphologies* liburua argitaratu da. Deskarga librean dago eskuragarri EHUko argitaletxean: [web-argitalpena.adm.ehu.es](http://web-argitalpena.adm.ehu.es)